# ZUMAIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO LANA

# REDACCIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE ZUMAIA



## ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA – AZTERKETA

## EVALUACIÓN DE IMPACTO LINGÚÍSTICO - ESTUDIO

**2024ko abendua**
Diciembre de 2024

HAPO PGOU

Zumaiako Udala

**ERDU - ESTUDIO DE RENOVACIÓN Y DESARROLLOS URBANOS**

| | | |
|---|---|---|
| Arkitekto hirigilea | Paula Amuchastegui Moreno | Arquitecta urbanista |
| Arkitekto teknikoa | Luis Sola Jiménez | Arquitecto Técnico |
| Arkitekto hirigilea | Julen Arregui Aizpurua | Arquitecto urbanista |
| Arkitekto hirigilea | Paula Ugarriza Fernández | Arquitecto urbanista |
| Abokatu hirigilea eta geografoa | Jesús Luis Sola Jiménez | Abogado urbanista y Geógrafo |
| Bide, ubide eta portuetako ingeniaria | Oscar Callejo | Ingeniero de caminos, canales y puertos |

AURKIBIDEA:

A. SARRERA 7

A.1 AZTERLANA EGITEKO BEHARRA ETA OINARRI JURIDIKOA ........ 8

A.2 EBALUAZIO BATZORDEA OSATZEA........ 9

B. EBALUAZIO PROZESUA 11

B.1 METODOLOGIA........ 11

B.2 EBALUAZIO PROZESUAREN IBILBIDEA........ 12

C. PLANAREN AZALPEN OROKORRA 13

C.1 MUGIKORTASUNA ........ 13

C.2 ESPAZIO LIBREAK ........ 14

C.3 EKIPAMENDUAK ........ 14

C.4 ETXEBIZITZAK........ 14

C.5 JARDUERA EKONOMIKOA ........ 17

D. ZUMAIAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK 19

D.1 BIZTANLERIA........ 19

D.2 EUSKARAREN EZAGUTZA ........ 19

D.3 ERABILERA KALEAN ........ 20

D.4 LEHEN HIZKUNTZA ........ 21

D.5 ETXEKO HIZKUNTZA........ 22

D.6 INFORMAZIOA AUZOKA. OIKIAREN KASUA ........ 23

D.7 ATZERRITARREN DATUAK ........ 25

D.8 HAURREN EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOA........ 27

D.9 ADMINISTRAZIOAREKIN EDO EKIPAMENDU ETA ZERBITZUETAN ARRETARAKO HAUTATUTAKO HIZKUNTZA ..... 27
D.9.1 OSASUN ZENTROAN ..... 27
D.9.2 ERRENTA AITORPENEAN ..... 28
D.10 UDALAREN ERABILERA PLANA ..... 28
D.11 HERRIRA BEGIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA ..... 29
D.12 HERRITARREN AKTIBAZIOA ..... 30

E. HIZKUNTZA INPAKTUAREN AZTERLANA 33

E.1 BILAKAERA INDIZEAREN KALKULU BERRIA ..... 33
E.1.1 BILAKAERA INDIZEA ..... 34
E.2 HIZKUNTZA INPAKTUAREN INTENTSITATEAREN KALKULUA ..... 35
E.3 FUNTSEZKO ALDERDIEI BURUZKO AZTERKETA ..... 38
E.3.1 ETXEBIZITZA ..... 40
E.3.2 ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK ..... 42
E.3.3 OINARRIZKO EKIPAMENDUAK. ..... 43
E.3.4 JARDUERA EKONOMIKOA ..... 43
E.3.5 JARDUERA SOZIOKULTURALA ..... 44
E.3.6 HIZKUNTZARI LOTUTAKO FUNTSEZKO ALDERDIAK ..... 46
E.4 KONPENTSAZIO-NEURRIAK ..... 47
E.4.1 HARRERA PROTOKOLOA ETA LIBURUXKAK ..... 47
E.4.2 IKERKETA ..... 48
E.4.3 IKASTAROAK ETA DIRULAGUNTZAK ..... 48
E.4.4 ITZULPEN ZERBITZUA ETA BALIABIDEAK ..... 48
E.4.5 AHALDUNTZEA ETA AKTIBAZIOA ..... 49
E.5 ONDORIOAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK ..... 49
E.5.1 ONDORIOAK ..... 49
E.5.1.1 ETXEBIZITZAK ..... 50
E.5.1.2 ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK ..... 50
E.5.1.3 OINARRIZKO EKIPAMENDUAK ETA MUGIKORTASUNA ..... 50
E.5.1.4 JARDUERA EKONOMIKOA ..... 50
E.5.1.5 JARDUERA SOZIOKULTURALA ..... 51
E.5.2 NEURRI ZUZENTZAILEAK ..... 51
E.5.2.1 PLANIFIKAZIO GARAIAN ..... 51
E.5.2.2 PLANA GAUZATU BITARTEAN ..... 52
E.5.2.3 PLANGINTZA GAUZATU ONDOREN ..... 52
E.6 EGITURAKETA ETA HURRENGO PAUSOAK ..... 52

ÍNDICE:

A. INTRODUCCIÓN 7

A.1 LA NECESIDAD DE REALIZAR EL ESTUDIO Y SU BASE JURÍDICA .......... 8

A.2 COMPOSICIÓN DE LA COMISIÓN DE EVALUACIÓN .......... 9

B. PROCESO DE EVALUACIÓN 11

B.1 METODOLOGÍA .......... 11

B.2 RECORRIDO DEL PROCESO DE EVALUACIÓN .......... 12

C. EXPLICACIÓN GENERAL DEL PLAN 13

C.1 MOVILIDAD .......... 13

C.2 ESPACIOS LIBRES .......... 14

C.3 EQUIPAMIENTOS .......... 14

C.4 VIVIENDA .......... 14

C.5 ACTIVIDADES ECONÓMICAS .......... 17

D. DATOS SOCIOLINGÜÍSTICOS DE ZUMAIA 19

D.1 POBLACIÓN .......... 19

D.2 CONOCIMIENTO DEL EUSKERA .......... 19

D.3 USO EN LA CALLE .......... 20

D.4 PRIMERA LENGUA .......... 21

D.5 LENGUA HABLADA EN CASA .......... 22

D.6 INFORMACIÓN POR BARRIOS. EL CASO DE OIKIA .......... 23

D.7 DATOS SOBRE LA POBLACIÓN EXTRANJERA .......... 25

D.8 SOCIALIZACIÓN EN EUSKERA DE LOS NIÑOS Y LAS NIÑAS .......... 27

D.9 IDIOMA ELEGIDO EN LAS RELACIONES CON LA ADMINISTRACIÓN O LOS EQUIPAMIENTOS Y SERVICIOS ........ 27
D.9.1 EN EL CENTRO DE SALUD ........ 27
D.9.2 EN LA DECLARACIÓN DE LA RENTA. ........ 28
D.10 PLAN DE USO DEL EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO ........ 28
D.11 PLAN ESTRATÉGICO PARA EL MUNICIPIO ........ 29
D.12 ACTIVACIÓN DE LA CIUDADANÍA ........ 30
E. ESTUDIO DEL IMPACTO LINGÜÍSTICO 33
E.1 CÁLCULO DEL ÍNDICE DE EVOLUCIÓN ........ 33
E.1.1 ÍNDICE DE EVOLUCIÓN ........ 34
E.2 CÁLCULO DE LA INTENSIDAD DEL IMPACTO LINGÜÍSTICO ........ 35
E.3 ANÁLISIS DE LOS ASPECTOS ESENCIALES ........ 38
E.3.1 VIVIENDA ........ 40
E.3.2 ESPACIOS PÚBLICOS ABIERTOS ........ 42
E.3.3 EQUIPAMIENTOS BÁSICOS. ........ 43
E.3.4 ACTIVIDAD ECONÓMICA ........ 43
E.3.5 ACTIVIDAD SOCIOCULTURAL ........ 44
E.3.6 ASPECTOS FUNDAMENTALES RELACIONADOS CON EL IDIOMA ........ 46
E.4 MEDIDAS COMPENSATORIAS ........ 47
E.4.1 PROTOCOLO DE ACOGIDA Y FOLLETOS ........ 47
E.4.2 INVESTIGACIÓN ........ 48
E.4.3 CURSOS Y SUBVENCIONES ........ 48
E.4.4 SERVICIO DE TRADUCCIÓN Y RECURSOS ........ 48
E.4.5 EMPODERAMIENTO Y ACTIVACIÓN ........ 49
E.5 CONCLUSIONES Y MEDIDAS CORRECTIVAS ........ 49
E.5.1 CONCLUSIONES ........ 49
E.5.1.1 VIVIENDAS ........ 50
E.5.1.2 ESPACIOS PÚBLICOS ABIERTOS ........ 50
E.5.1.3 EQUIPAMIENTOS BÁSICOS Y MOVILIDAD ........ 50
E.5.1.4 ACTIVIDAD ECONÓMICA ........ 50
E.5.1.5 ACTIVIDAD SOCIOCULTURAL ........ 51
E.5.2 MEDIDAS CORRECTORAS ........ 51
E.5.2.1 EN EL MOMENTO DE LA PLANIFICACIÓN ........ 51
E.5.2.2 DURANTE LA REALIZACIÓN DEL PLAN ........ 52
E.5.2.3 DESPUÉS DE LLEVAR A CABO LA PLANIFICACIÓN ........ 52
E.6 ESTRUCTURACIÓN Y PRÓXIMOS PASOS ........ 52

# A. SARRERA

Honako dokumentu hau Zumaiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko (HAPO) hizkuntza inpaktuaren ebaluazioaren prozedurako baitako dokumentua da, hizkuntza inpaktuaren ebaluazioaren azterlana hain zuzen ere (hizkuntza inpaktuaren ebaluazio txostenaren aurreko dokumentua). Irismen dokumentuak plan edo proiektu batek eremu jakin bateko egoera soziolinguistikoan eragin negatiboa izan lezakeela ondorioztatu ondoren, eragin horren neurria kalkulatuko duen azterlana da.

Zumaia herri euskalduna da, eta 2009tik UEMA edo Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kidea. Izan ere, adituen eta erakundeen iritziz (UEMA, Soziolinguistika Klusterra…), udalerri bat euskalduntzat joko bada, euskara indizeak % 70etik gorakoa izan behar du. Zumaiaren indizea % 80,32koa da. Horrenbestez, parametro horren arabera, udalerri euskalduna da.

Udalak herri euskaldunaren izaera indartu eta proiektatzeko konpromisoa du, eta halaxe jaso zuen 2015-2025 plan estrategikoan ere. Horrenbestez, herriaren izaera euskalduna kontuan hartzeko elementu bat da, bereziki zaindu behar dena.




*Biharko Zumaiara boga. Zumaiako 2015-2025 plan estrategikoa.*

Zumaiako Udalean aspaldi aurreikusi zen ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) erabiltzea. 2015ean landutako plan estrategikoan hauxe jaso zuen sarrerako testuan:

> *"Zumaia, UEMAko kide den neurrian, arnasgunea da euskararentzat, eroso bizi ahal izateko eremua. Mankomunitate honek garatu duen ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) erabili beharko litzateke aurrera begirako garapenek herrian hizkuntzaren ikuspegitik ere izango duten eragina neurtzeko. Azken batean, ingurumenean bezala, prebentzio ikuspegia txertatu nahi da, garatu beharreko eremuak ez eragiteko kalterik gune euskal horien euskarazko gizarte bizitzan eta kultur garapenean. Hirigintza garapen berri batek Zumaian sortuko lukeen egoera soziolinguistikoaren aldaketa kontuan hartu beharko litzateke, eragina aurreikusiz, identifikatuz eta ebaluatuz. Eragin linguistiko hori hizkuntza batentzat positiboa, negatiboa edo neutroa izan daiteke. Eta plangintza horrek euskararen hizkuntza komunitateari kalterik eragin diezaiokeela aurreikusiz gero, kalte hori murrizteko edo aurre hartzeko neurri zuzentzaileak zehaztea eta abian jartzea aurreikusi beharko litzateke."*

# A. INTRODUCCIÓN

Este documento forma parte del procedimiento de evaluación del impacto lingüístico del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Zumaia. Se trata concretamente del estudio de impacto lingüístico (documento previo al informe de evaluación del impacto lingüístico). Es el estudio que, tras concluir el documento de de alcance un plan o proyecto que éste podría tener un impacto negativo, calcula la magnitud de dicho impacto.

Zumaia es un municipio euskaldún, y desde 2009 forma parte de la mancomunidad de municipios euskaldunes (UEMA). Según la opinión de expertos e instituciones (UEMA, Soziolinguistika Klusterra…), para que un municipio sea considerado euskaldún cuando el índice de euskera debe ser superior al 70 %. El índice de Zumaia es del 80,32 %. Por lo tanto, según ese parámetro, es un municipio euskaldun.

El Ayuntamiento tiene el compromiso de fortalecer y proyectar la naturaleza euskalduna del municipio, y así recogió en el plan estratégico 2015-2025. Así, la naturaleza euskalduna del municipio es un elemento a tener en cueta, que debe ser especialmente cuidado.




*Biharko Zumaiara boga. Plan Estratégico de Zumaia 2015-2025.*

En el Ayuntamiento de Zumaia se había previsto desde hace tiempo la utilización de la ELE (Evaluación del Impacto Lingüístico). El plan estratégico elaborado en 2015, recogió lo siguiente en el texto introductorio:

> *"Zumaia, al ser miembro de UEMA, es un nicho vital para el euskera, una zona donde vivir cómodamente. Debería utilizarse la EIL (Evaluación de la Influencia Lingüística) desarrollada por esta Mancomunidad para medir la influencia de los desarrollos futuros en el municipio desde el punto de vista lingüístico. En definitiva, como en el medio ambiente, se trata de incorporar la perspectiva de la prevención, para que las zonas que se deben desarrollar no perjudiquen a la vida social y al desarrollo cultural en euskera de esas zonas. Debería tenerse en cuenta la modificación de la situación sociolingüística que provocaría un nuevo desarrollo urbanístico en Zumaia, previendo, identificando y evaluando la influencia. Dicha influencia lingüística puede ser positiva, negativa o neutra para un idioma. Y si se previera que dicha planificación podría perjudicar a la comunidad lingüística del euskera, debería contemplarse la especificación y la puesta en marcha de medidas para reducir o prevenir dicho*

Azken batean euskara ondare immateriala da, nortasun ikurretan islatzen dena, eta ezinbestekoa da herrian eragina duten proiektuetan nortasun ikur horiek zaintzea eta elikatzea. Horren adibide dira 2019an landutako Turismo planean eta harrezkero egindako ekimen eta kanpaina batzuetan bisitariei euskara erakusteko baliabideak eta mezuak: Ongi etorri euskararen herrira, terrazen ordenantzan hizkuntza baldintzak zehaztea, hiztegitxoak, etab.

Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan xedatutako betebeharrak hobeto kudeatzeko, eta UEMArekin elkarlanean, **ELE ordenantza** landu eta onartu zuen Zumaiako Udalak 2023an (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2023ko abuztuaren 10ean). Horren bitartez, **eragin linguistikoa** noiz, nork eta nola ebaluatuko duen zehaztu zuen.

Udalerri euskaldun batzuetan badira ikuspuntu soziolinguistikotik aparteko balioa duten guneak: arnasguneak. 179/2019 Dekretu horrek arnasguneen definizioa ematen duenean, euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorako adierazlea zehazten du (hizkuntza ezagutza). Baldintza hori betetzen duen gune bat bada Zumaian: Oikia (euskaldunak % 83,33 dira).

*perjuicio."*

En última instancia, el euskera es patrimonio inmaterial, que se refleja en los símbolos de identidad, y es esencial cuidar y alimentar esos símbolos de identidad en los proyectos que tienen impacto en el municipio. Ejemplos de ello son los recursos para enseñar euskera y los mensajes para las personas visitantes en el Plan de Turismo elaborado en 2019 y en algunas campañas e iniciativas posteriores: Ongi etorri euskararen herrira (Bienvenido/a al país del euskera), la determinación de condiciones lingüísticas en las ordenanzas de terrazas, los pequeños diccionarios, etc.

Para gestionar mejor las obligaciones establecidas en el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, y en colaboración con UEMA, el Ayuntamiento de Zumaia elaboró y aprobó en 2023 la **ordenanza ELE** (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 10 de agosto de 2023). Mediante esta ordenanza, definió cuándo, quién y cómo se evaluará el **impacto lingüístico**.

En algunos municipios euskaldunes, existen zonas de extraordinario valor desde el punto de vista sociolingüístico: son los "arnasgunes" (espacios vitales del euskera). El mencionado Decreto 179/2019, en la definición los arnasgunes, concreta como indicador un porcentaje de personas que hablan euskera superior al 80 %. En Zumaia, hay una zona que cumple con dicha condición: Oikia (los euskaldunes son el 83,33 %).

## A.1 AZTERLANA EGITEKO BEHARRA ETA OINARRI JURIDIKOA

Azterlan honen idazketa zenbait lege eta arautegik derrigortzen dute. 2016. urtean, 2/2016 Legea onartu zen, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Horren 7. artikuluko (toki-erakundeen eta udalen eskumenei buruzkoa, euskararen erabilerari dagokionez), 7. puntuak zera dio:

> *"Udalen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira".*

179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, bere IV. Kapituluan, PLANEN ETA PROIEKTUEN HIZKUNTZA-INPAKTUA EBALUATZEA eskatzen du, eta horretarako prozedura zehazten du.

Dekretu horren 50. artikuluan ebaluatu behar diren planak eta proiektuak zehazten dira, eta tartean azaltzen dira "Hiri-antolamenduko plan orokorrak".

Zumaiako HAPOren hasierako onespenean integratuko den dokumentua da honako azterlana (Hizkuntza Inpaktuaren Azterlana); dagokion epean erakusketa publikoan egongo

## A.1 LA NECESIDAD DE REALIZAR EL ESTUDIO Y SU BASE JURÍDICA

La redacción de este estudio deviene obligada por varias leyes y normativas. En el año 2016, se aprobó la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. El artículo 7 de dicha ley (sobre las competencias de las entidades locales y de los municipios respecto al uso del euskera.) reza, en su apartado 7, lo siguiente:

*"En el procedimiento de aprobación de proyectos o planes que pudieran afectar a la situación sociolingüística de los municipios se evaluará su posible impacto respecto a la normalización del uso del euskera, y se propondrán las medidas derivadas de esa evaluación que se estimen pertinentes."*

El Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, en su IV capítulo, solicita la EVALUACIÓN DEL IMPACTO LINGÜÍSTICO DE LOS PLANES Y PROYECTOS, y determina el procedimiento para ello.

El artículo 50 de dicho decreto define los planes y proyectos objeto de evaluación, entre los que se encuentran los "Planes Generales de Ordenación Urbana".

El presente estudio (el Estudio de Impacto Lingüístico) es un documento que se integrará en la aprobación inicial del PGOU de Zumaia, estará en exposición pública durante el

da eta bertatik eratorritako alegazio eta moldaketekin aurkeztuko da behin betiko dokumentua: HIZKUNTZA INPAKTUAREN EBALUAZIO TXOSTENA.

## A.2 EBALUAZIO BATZORDEA OSATZEA

Zumaiako Udalaren ELE ordenantzak ezarritakoaren arabera osatu da ELE batzordea, honako kide hauekin:

- Gorka Arregi (hirigintzako arduraduna, arkitektoa)
- Argi Yeregi (hirigintza zinegotzia, arkitektoa)
- Aitor Manterola (euskara zinegotzia)
- Alexander Marañon (Udaleko idazkaria)
- Paula Amuchastegui (HAPOren erredaktore taldeko (ERDU enpresako) zuzendaria eta arkitekto hirigilea)
- Julen Arregi (HAPOren erredaktore taldeko arkitekto hirigilea)
- Imanol Azkue (Larraina euskara elkarteko kidea)
- Goizane Arana (UEMAko euskara teknikaria)
- Xabier Azkue (Udaleko euskara teknikaria)

2022an beste bi saio ere antolatu zituen Udalak gai honen inguruan, antzeko osaerarekin.

- 2022ko apirilaren 27ko bilera prestakuntza moduko bat izan zen: zer da HAPO eta zer egin daiteke plan horren barruan.
- 2022ko maiatzaren 24ko bileran hizkuntzaren gaira lehen hurbilketa egin zuten batzordekideek, kezkak eta aztergaiak izan zitezkeenak zerrendatzeko: etxebizitza kopurua, tipologia, espazio irekien planteamendua, Oikiaren izaera berezia (arnasgune modukoa, eskolan ikasle gutxi...), kanpoaldeko auzoetako mugimenduak (Narrondo eta Arroabea), etab.

Nolanahi ere, une hartan erabaki giltzarri batzuk hartu gabe zeuden, eta azterlana ondo egiteko nahiko informazio ez zegoenez, itxarotea erabaki zuten arduradunek.

plazo correspondiente y, con las alegaciones y modificaciones derivadas de la mismas, se presentará el documento definitivo: el INFORME DE EVALUACIÓN DEL IMPACTO LINGÜÍSTICO.

## A.2 COMPOSICIÓN DE LA COMISIÓN DE EVALUACIÓN

La comisión ELE se ha formado,según lo establecido en la ordenanza ELE del Ayuntamiento de Zumaia, con los/as siguientes miembros:

- Gorka Arregi (Responsable de Urbanismo, arquitecto)
- Argi Yeregi (Concejala de Urbanismo, arquitecta)
- Aitor Manterola (Concejal de Euskera)
- Alexander Marañón (Secretario del Ayuntamiento)
- Paula Amuchastegui (Arquitecta urbanista y directora del equipo redactor (la empresa ERDU) del PGOU)
- Julen Arregi (Arquitecto urbanista del equipo redactor)
- Imanol Azkue (Miembro de la asociación Larraina euskara elkartea)
- Goizane Arana (Técnica de Euskera de UEMA)
- Xabier Azkue (Técnico de Euskera del Ayuntamiento)

En 2022, el Ayuntamiento organizó otras dos reuniones sobre este tema, con una composición similar:

- La reunión del 27 de abril de 2022 fue una especie de sesión formativa: qué es el PGOU y qué se puede hacer dentro de ese plan.
- En la reunión del 24 de mayo de 2022, los/as miembros de la comisión realizaron una primera aproximación al tema del lenguaje, para listar posibles preocupaciones y temas a analizar: el número de viviendas, la tipología, el planteamiento de los espacios abiertos, la especial naturaleza de Oikia (como arnasgune, con poco alumnado en la escuela…), los movimientos en los barrios periféricos (Narrondo y Arroabea), etc.

En cualquier caso, en aquel momento no se habían tomado algunas decisiones clave y, ante la falta de información suficiente para realizar bien el estudio, las personas responsables decidieron esperar.

# B. EBALUAZIO PROZESUA

## B.1 METODOLOGIA

Hizkuntzaren inpaktuaren azterlana egiteko Eusko Jaurlaritzak 179/2019 Dekretuan zehazten duen metodologiari eta urratsei jarraitu zaie, eta horretarako Kultura eta Hizkuntza Sailak eskuragarri jartzen duen tresna eta aplikazioa erabili dira (UEMArekin batera garatutakoa).

1. Egitasmoa eta garatuko den tokiaren testuingurua aztertzea.
2. Hizkuntza azterlanaren irismena zehaztea.
   - Galdetegi laburra erantzutea.
   - Euskararen Proiekzio Indizea (PI) eta Bilakaera Indizea (BI) kalkulatzea.
3. Hizkuntza inpaktuaren azterlana egitea:

a) Planaren edo proiektuaren azalpen orokorra eta garatzeko beharko den denboraren gaineko aurreikuspenak.

b) Hizkuntza inpaktuaren intentsitatearen kalkulua. Inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko, aldagai hauek hartu behar dira kontuan:
   - Bizitza sozialaren eta kulturalaren gaineko inpaktua.
   - Biztanleen edo bisitarien hizkuntza gaitasuna.
   - Biztanleen edo bisitarien hizkuntza erabilera.
   - Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.
   - Eraginpeko eremuko hizkuntza paisaia.
   - Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza eskaintza.

c) Funtsezko alderdiei buruzko azterketa. Honako eremu hauek kontuan hartu behar dira:
   - Plan edo proiektu motaren ezaugarriei buruzkoak.
   - Planaren edo proiektuaren denbora eta espazio dimentsioak.
   - Kokapenari buruzkoak.
   - Planteatu diren hizkuntza erabilerari buruzko irizpideen gainekoak.

d) Konpentsazio neurriak (planak barne hartzen baldin baditu).

e) Neurri zuzentzaileak.

Behin diagnostikoa eta aurreikuspena eginda, zein funtsezko alderdiei buruzko azterketa eginda, azaldu diren eragin posible horiei zein neurri zuzentzaile proposatzen zaien azaltzeko puntua da honakoa.

# B. PROCESO DE EVALUACIÓN

## B.1 METODOLOGÍA

Para realizar el estudio de impacto lingüístico, se han seguido la metodología y los pasos establecidos por el Gobierno Vasco en el Decreto 179/2019, y, para ello, se han utilizado la herramienta y la aplicación puestas a disposición por el Departamento de Cultura y Política Lingüística (desarrolladas junto con UEMA):

1. Analizar el contexto del lugar en el que se va a desarrollar la iniciativa.
2. Concretar el alcance del estudio lingüístico.
   - Responder cuestionario corto.
   - Calcular el Índice de Proyección del euskera (PI) y el Índice de Evolución (BI).
3. Realizar el estudio de impacto lingüístico:

a) Descripción general del plan o proyecto y previsiones en el tiempo sobre su desarrollo.

b) Cálculo de la intensidad del impacto lingüístico. Para el cálculo de la intensidad del impacto, se tendrán en cuenta las siguientes variables:
   - Impacto sobre la vida social y cultural.
   - Conocimiento lingüístico por parte de la población o de las personas visitantes.
   - Uso lingüístico por parte de la población o de las personas visitantes.
   - Comunicación en el ámbito de la actividad o del servicio.
   - Paisaje lingüístico en la zona de influencia.
   - Oferta lingüística en el ámbito de la actividad o del servicio.

c) Análisis de los aspectos esenciales. Se tomarán en consideración los siguientes aspectos:
   - Relacionados con la naturaleza del plan o proyecto.
   - Relacionados con la dimensión temporal y espacial del plan o proyecto.
   - Relacionados con la ubicación..
   - Relacionados con los criterios de uso lingüístico previstos.

d) Medidas de compensación (si están incluidas en el plan).

e) Medidas correctoras.

Una vez realizados el diagnóstico y las previsiones, así como el análisis de los aspectos esenciales, el siguiente punto es explicar qué medidas correctoras se proponen para los posibles impactos detectados.

## B.2 EBALUAZIO PROZESUAREN IBILBIDEA

Ebaluazio prozesuak hiru fase izan ditu:

1. Aurrelanak.
2. Ebaluazio batzordearen jarraipena.
3. Hizkuntza inpaktuaren azterlanaren idazketa.

Lehenengo fasean honakoak izan dira zereginak: Zumaiako HAPOren inguruko eta udalerriaren inguruko informazioa eskuratzea. Oinarrizko datu bilketa, zeharkako iturrietatik datu bilketa, dokumentuak, estatistikak. Fase honetako arduradunak HAPOren erredaktore taldea eta Udaleko euskara teknikaria izan dira, eta Zumaiako udalerriko biztanleriaren gaineko, etxebizitzen gaineko eta euskararen gaineko datuak gurutzatu eta aztertu dira.

Bigarren fasean arestian aipatutako Ebaluazio Batzordearen jarraipena egin da. Jarraipen hori hiru pausotan gauzatu da:

- LEHEN SAIOA: aurrez aurreko bilera Zumaiako udaletxean, 2024ko otsailaren 22an. Landutako gaiak: testuingurua ematea, Aurrerakinetik Hasierako onespenerako dokumentura zer aldatu den ikustea eta ELE aplikazioaren inguruko lanak azaltzea.
- BIGARREN SAIOA: aurrez aurreko bilera udaletxean, 2024ko martxoaren 21ean. Landutako gaiak: irismen dokumentua, funtsezko alderdien galdetegia (bereziki etxebizitzak eta jarduera ekonomikoa).
- HIRUGARREN SAIOA: aurrez aurreko bilera udaletxean, 2024ko apirilaren 18an. Landutako gaiak: hizkuntza inpaktuaren intentsitatea, ondorioak, neurriak eta hurrengo pausoak.

Azken fasean Udaleko euskara teknikariak, HAPOren erredaktore taldearekin elkarlanean, honako hizkuntzaren inpaktuaren azterlanaren idazketa gauzatu du, aurreko faseetan batutako informazioa laburbildu eta barne hartzen duena.

## B.2 RECORRIDO DEL PROCESO DE EVALUACIÓN

El proceso de evaluación ha tenido tres fases:

1. Trabajos previos.
2. Seguimiento de la Comisión de Evaluación.
3. Redacción del estudio de impacto lingüístico.

En la primera fase, las tareas consistieron en obtener información sobre el PGOU de Zumaia y sobre el municipio. Se realizó una recopilación de datos básicos, una recopilación de datos de fuentes secundarias, documentos y estadísticas. Las personas responsables de esta fase fueron el equipo redactor del PGOU y el técnico de Euskera del Ayuntamiento. Se cruzaron y analizaron los datos sobre la población del municipio de Zumaia, la vivienda y el euskera.

En la segunda fase se llevó a cabo el seguimiento de la Comisión de Evaluación mencionada anteriormente. Dicho seguimiento se llevó a cabo en tres pasos:

- PRIMERA SESIÓN: reunión presencial en el Ayuntamiento de Zumaia, el 22 de febrero de 2024. Los temas tratados fueron: contextualización, revisar qué cambios se han realizado desde el documento de Avance hasta el documento de Aprobación Inicial y explicar los trabajos relacionados con la aplicación ELE.
- SEGUNDA SESIÓN: reunión presencial en el Ayuntamiento de Zumaia, el 21 de marzo de 2024. Los temas tratados fueron el documento de alcance y el cuestionario sobre los aspectos esenciales (especialmente, la vivienda y la actividad económica).
- TERCERA SESIÓN: reunión presencial en el Ayuntamiento de Zumaia, el 18 de abril de 2024. Los temas tratados fueron: la intensidad del impacto lingüístico, conclusiones, las medidas y siguientes pasos.

En la última fase, el técnico de Euskera del Ayuntamiento, en colaboración con el equipo redactor del PGOU, redactó el estudio de impacto lingüístico, que resume e incorpora la información recopilada en las fases anteriores.

# C. PLANAREN AZALPEN OROKORRA

Informazio eta Aurrerakin faseetan herritarrek parte hartzeko prozesurako, edukiak 10 gaietan egituratu eta landu ziren, errazago ulertzeko. Azken dokumentuarekiko (Aurrerakinarekiko) aldaketak eta planteamendu nagusiak 5 puntu nagusitan azal daitezke.

# C. EXPLICACIÓN GENERAL DEL PLAN

Para el proceso de participación ciudadana de las fases de Información y Avance, los contenidos se estructuraron trabajaron 10 temas, a fin de facilitar su comprensión. Los cambios respecto al último dicho documento (Avance) y los planteamientos principales se pueden explicar en 5 puntos principales.




## C.1 MUGIKORTASUNA

Ibilgailuen mugikortasunari dagokionez, aldaketarik esanguratsuena Aita Mari futbol zelaiaren inguruan planteatzen da, auzo horretarako sarbidea hobetuz. Gainera, Narrondoko eta Guascor zaharreko sarbideak egokitzea proposatzen da berrantolaketa berriei erantzun egokia emateko. Guascor zaharraren kasuan, Artadirako bidearen lotunea birmoldatuz. Oikian, herrigunearen erdigunetik ibilgailuen trafikoa desbideratzea aurreikusten da, Errementerikoan aurreikusitako bide berriaren bidez.

Aparkalekuei dagokienez, aparkaleku batzuk gehitu dira: bat Barinaga txatartegian (Zubiaundia eta ontziolaren artean) eta beste bat Guascor zaharraren ondoan (Artadirako bidegurutzean) hondartzarako sarbideari zerbitzua emateko eta beste bat Estazio kalean; eta Aita Marirena (kiroldegiaren eta futbol zelaiaren ondoan) berrantolatu da, Aita Marin aurreikusitako etxebizitza eraikin berriaren sotoko bigarren solairuan beste bat ezartzeaz gain.

Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari dagokionez, bide batzuk osatu edo hobetu dira (Axular ibiltokia, Estazio

## C.1 MOVILIDAD

En lo que respecta a la movilidad rodada, el cambio más significativo se plantea en torno al campo de fútbol de Aita Mari, mejorando el acceso a dicho barrio. Además se propone modificar los accesos de Narrondo y la antigua Guascor con la remodelación nudo de enlace con el camino hacia Artadi, para dar respuesta adecuada a las nuevas reordenaciones. En Oikia se prevé el desvío del tráfico rodado del centro del núcleo mediante el nuevo vial previsto en Errementerikoa.

En cuanto a los aparcamientos, se han añadido algunos nuevos: uno en la chatarrería Barinaga (entre Zubiaundia y el astillero) y otro junto a la antigua fábrica de Guascor (en el cruce hacia Artadi) para dar servicio al acceso a la playa y otro en Estazio kalea; y se ha reordenado el de Aita Mari (junto al polideportivo y el campo de fútbol) además de producir uno nuevo en la segunda planta de sótano del nuevo edificio residencial previsto en Aita Mari.

Respecto a la movilidad peatonal y ciclista, se han completado o mejorado algunas vías (Axular ibiltokia, Estazio kalea y el camino al polígono industrial de Oikia). Las

kalea eta Oikia industrialderako bidea). Bizikleta bide berri nagusiak Urolako bizikleta bidearen (Zumaia eta Zestoa lotzen dituena) eta estazioko ingurua Joxe Mari Korta industrialdearekin eta Oikiarekin lotzen duen bidea dira. Oikian, erdialdean aurreikusitako bizitegi-jarduketa berriari esker, egungo bidea (irteerarik gabea) eliza eta eskola berria lotzen dituen bidearekin lotu ahal izango da, aldi berean oinezko eta ibilgailuentzako kale berri baten bidez. Kale berri horrek Elizaren inguruaren etorkizuneko oinezkoen izaera indartzeko balioko du (Errementerikoan aurreikusitako bide berriaren bidezko desbideratzearekin batera).

Gainera, Juan Belmonte kaletik Talaimendira sarbide berri bat egitea planteatu da, ingurune naturalaren eta hiri-ingurunearen arteko lotura hobetzeko.

nuevas vías ciclistas principales son las correpondientes a la vía ciclista del Urola (que une Zumaia y Zestoa) y la vía que une en el entorno de la estación con Joxe Mari Korta y Oikia. En Oikia, la nueva actuación residencial prevista en el centro posibilitará la conexión del viario actual (sin salida) con el viario que une la Iglesia y la nueva escuela, mediante una nueva calle de coexistencia peatonal-rodado,que servirá para potenciar el futuro carácter peatonal del entorno de la Iglesia (al igual que con el desvío mediante el nuevo vial previsto en Errementerikoa).

Además se plantea un nuevo acceso a Talaimendi desde la calle Juan Belmonte, mejorando la conectividad entre el entorno natural y el urbano.

## C.2 ESPAZIO LIBREAK

HAPO berriak ez ditu jada indarrean dauden Arau Subsidiarioetan (AStan) jasotako espazio libreen sistema orokor batzuk kalifikatzen, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen baitira.

Gune berriak proposatzen dira alde zaharrean, harrotzeko, bai eta bizitegi jarduketa berrietan ere, sarea egituratu eta osatzeko. Azpimarratzekoak dira espazio libre berri batzuk: Narrondokoa (ibai-ertza berreskuratzen da eta zementu-fabrika zaharrari lotutako industria ondarea erabiltzen da), Artadiko igoeratik gertu dagoen pinudia, Olazabal jauregiko lorategia eta beste hainbat.

## C.2 ESPACIOS LIBRES

El nuevo PGOU ya no califica algunos sistemas generales de espacio libres recogidos en las Normas Subsidiarias (NNSS) vigentes, puesto que se clasifican como suelo no urbanizable.

Se plantean nuevos espacios en el entorno del casco, para esponjarlo, así como en las nuevas actuaciones residenciales, que van estructurando y mallando la red. Algunos nuevos espacio libres destacables son el nuevo espacio libre en Narrondo (donde se recupera el borde fluvial y se da uso al Patrimonio industrial ligado a las antiguas cementeras), el pinar próximo a la subida a Artadi, el jardín del Palacio Olazabal, etc.

## C.3 EKIPAMENDUAK

Dokumentu berrian, Erkibe etxeak eta Foronda Jauregiak ez dute antolamendu-jarduketarik aurreikusita, baina bai fitxa bat Ondarearen katalogoan, non babesa ezartzen den (eta horrekin lotuta, baimendutako esku hartzeak).

Puntu aipagarriena futbol zelaia da, Aita Maritik Puntanoetara aldatzea planteatzen delako; kiroldegia ere hara mugitzeko aukera aurreikusita zegoen, baina dagoen tokian mantendu eta pixka bat handitzea proposatu da. Beste ekipamendu berezi batzuk dira Komentua, Parolaldeko igerilekuak, langileen etxe zaharra Narrondon, udal brigada berria eda Zuloaga Museoaren handipena.

.

## C.3 EQUIPAMIENTOS

En el nuevo documento la casa Erkibe y el Palacio Foronda no tienen ninguna actuación de ordenación prevista, pero sí una ficha dentro del catálogo de Patrimonio donde se establece su protección (y asociado a ella, las intervenciones permitidas).

El punto más destacado es el campo de fútbol, ya que se plantea trasladarlo de Aita Mari a Puntanoeta; también se había previsto la posibilidad de mover el polideportivo a esa ubicación, pero se ha propuesto mantenerlo en su ubicación actual y ampliarlo un poco. Otros equipamientos destacados son el Convento, las piscinas de Parolaldea, la obtención en Narrondo de la antigua casa de trabajadores, la nueva brigada municipal o la ampliación del Museo Zuloaga.

## C.4 ETXEBIZITZAK

Planak etxebizitzaren arazoari heltzen dio helburu nagusi gisa, etxebizitza publikoen aldeko proposamena eginez eta garapen berriko eta hiri berroneratzeko jarduketak ahalbidetuz. Duten garrantziagatik eta sortzen duten etzebizitza kopuruagatik 3 jarduera nabarmentzen dira: Aita Mari, Puntanoeta, Urola plaza-Guascor eta Narrondo.

## C.4 VIVIENDA

El plan aborda la problemática de la vivienda como principal objetivo, haciendo una propuesta decidida por la vivienda pública y posibilitando actuaciones de nuevo desarrollo y de regeneración urbana. Hay 3 actuaciones que destacan sobre el resto, tanto por su importancia como por le volumen de vivienda que producen: Aita Mari,

Justifikazio memorian jasotako bizitegi eremuak hartu dira erreferentzia modura azterlan hau egiteko.

Puntanoeta, Urola plaza-Guascor y Narrondo.

Para realizar este análisis se han tomado como referencia los ámbitos residenciales recogidos en la memoria justificativa.

**Bizitegi-kalifikazio orokorreko zonetako jarduketen proposamena. Etxebizitzen xehetasuna (orientagarria)**
**Propuesta de actuaciones en zonas de calificación global residencial. Detalle de viviendas (orientativo)**

| Jardueraren izena / Nombre actuación | | etxebizitza babestuaren proposamena / propuesta vivienda protegida | | | | etxebizitza-proposamena, erregimenaren arabera / propuesta de vivienda según régimen | | | | etxebizitzen guztizko proposamena / propuesta de viviendas según situación | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | BSE VPS | % % | ET VT | % % | babestua protegida | % % | librea libre | % % | daudenak existentes | % % | gehikuntza incremento | % % | totala total |
| AD-R01 | Arritokieta kalea 014 | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 2 | 100,00 % | 1 | 50,00 % | 1 | 50,00 % | **2** |
| AD-R02 | Eusebio Gurrutxaga | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 6 | 100,00 % | 4 | 66,67 % | 2 | 33,33 % | **6** |
| AD-R03 | Olazabal idazkariaren | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 2 | 100,00 % | 1 | 50,00 % | 1 | 50,00 % | **2** |
| AD-R04 | Harategi kalea 15 | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 2 | 100,00 % | 1 | 50,00 % | 1 | 50,00 % | **2** |
| AD-R05 | Harategi kalea 19 | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 2 | 100,00 % | 1 | 50,00 % | 1 | 50,00 % | **2** |
| AD-R06 | San telmo kalea 905 | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 2 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | 2 | 100,00 % | **2** |
| AD-R07 | San telmo kalea 14 | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 4 | 100,00 % | 3 | 75,00 % | 1 | 25,00 % | **4** |
| AD-R08 | San Telmo kalea 21 | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 3 | 100,00 % | 2 | 66,67 % | 1 | 33,33 % | **3** |
| AD-R09 | San Telmo kalea 25 | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 5 | 100,00 % | 4 | 80,00 % | 1 | 20,00 % | **5** |
| AD-R10 | Jadarre auzunea 03 | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 1 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | 1 | 100,00 % | **1** |
| AD-R11 | Oikia auzoa 36 | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 1 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | 1 | 100,00 % | **1** |
| AD-R12 | Oikia auzoa 34 BIS | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 1 | 100,00 % | 1 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | **1** |
| AD-R13 | Oikia auzoa 34 | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 1 | 100,00 % | 1 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | **1** |
| AD-R14 | Oikia auzoa 917 | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 1 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | 1 | 100,00 % | **1** |
| AI-SUNC-R01 | San Jose | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 10 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | 10 | 100,00 % | **10** |
| AI-SUNC-R02 | Arritokieta | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 10 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | 10 | 100,00 % | **10** |
| AI-SUNC-R03 | Erribera | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 14 | 100,00 % | 8 | 57,14 % | 6 | 42,86 % | **14** |
| AI-SUNC-R04 | Estazioa A | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 20 | 100,00 % | 7 | 35,00 % | 13 | 65,00 % | **20** |
| AI-SUNC-R05 | Estazioa B | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 10 | 100,00 % | 3 | 30,00 % | 7 | 70,00 % | **10** |
| AI-SUNC-R06 | Urola plaza - Guascor | 52 | 37,68 % | 46 | 33,33 % | 98 | 71,01 % | 40 | 28,99 % | 0 | 0,00 % | 138 | 100,00 % | **138** |
| AI-SUNC-R07 | Aita Mari | 32 | 20,00 % | 32 | 20,00 % | 64 | 40,00 % | 96 | 60,00 % | 0 | 0,00 % | 160 | 100,00 % | **160** |
| AI-SUNC-R08 | Oikia | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 14 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | 14 | 100,00 % | **14** |
| AI-SUS-R09 | Puntanoeta | 150 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | 150 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 150 | 100,00 % | **150** |
| AI-SUS-R10 | Narrondo | 46 | 50,00 % | 14 | 15,22 % | 60 | 65,22 % | 32 | 34,78 % | 12 | 13,04 % | 80 | 86,96 % | **92** |
| PEOU-R01 | Errementerikoa | 24 | 66,67 % | 12 | 33,33 % | 36 | 100,00 % | 0 | 0,00 % | 0 | 0,00 % | 36 | 100,00 % | **36** |
| **Udalen guztizkoak / Totales municipales** | | **304** | 44,25 % | **104** | 15,14 % | **408** | 59,39 % | **279** | 40,61 % | **49** | 7,13 % | **638** | 92,87 % | **687** |

BSE / VPS: babes sozialeko etxebizitza / vivienda de protección social ET / VT: etxebizitza tasatua / vivienda tasada

Aita Mari eremua eraikitzea futbol zelaia Puntanoetara eramatearekin lotuta dago. Lurzoru hori libre uzteari esker 160 etxebizitza antolatu daitezke, horien % 40 araubide publikokoak (babestuak eta tasatuak). Puntanoeta, batez ere, udalerrian hain beharrezkoa den babes sozialeko etxebizitzak egitera bideratutako jarduketa da, administrazio publikoak sustatua.

Urola plaza - Guascor eremuaren helburua jarduera ekonomikoko lurzoruak berroneratzea eta Guascorren eraikin zaharrak okupatutako lurzoruak berrantolatzea da. Lehenengoak bizitegi-erabilerarako izango dira, eta bigarrenak jarduera ekonomikorako. Jarduketa honek

La edificación del ámbito de Aita Mari va ligada al traslado del campo de fútbol a Puntanoeta. La liberación de este suelo permite ordenar 160 viviendas, el 40 % de ellas de régimen público (protegidas y tasadas). Puntanoeta es una operación principalmente enfocada a la producción de vivienda de protección social, tan necesaria en el municipio, promocionada por la administración pública.

El ámbito de Urola plaza-Guascor tiene como objetivo la regeneración de unos suelos de actividad económica y la reordenación de los suelos ocupados por el antiguo edificio de Guascor. Los primeros se destinan a uso residencial y los segundos a actividad económica. Esta actuación da

jarraipena ematen dio Torreagan hasitako zaharkituak dauden jarduera ekonomikoko lurzoruak berreskuratzeko ekimenari, eta bizitegi-ehunaren eta mantentzen den industria-ehunaren arteko trantsizio gisa balio du, jarduera guztia kanpo eramatea saihestuz.

Narrondokoa auzoa egituratzeko eta finkatzeko aukera ematen duen eremua da. Gainera, zementu-fabrika zaharraren industria-ondarearen aztarnak berreskuratu eta birgaituko dira.

**Oikian etxebizitzak** egiteko 3 proposamen zeuden, eta azkenean 2 izango dira. Horietako batek herrigunearen erdiguneko hiri-bilbea xehetasunez antolatzen du, hori egituratzeko eta egun dagoen hiri-hutsunea ezabatzeko, eta elkarte zaharraren eta elizaren eta eskola berriaren arteko lotura hobetzeko. Bigarren proposamena etxebizitza babestuak egiteko garapen gisa planteatu da. Gainera, erdiguneko trafikoa desbideratzea ahalbidetuko lukeen bide bat aurreikusten du, Elizaren eta gainerakoaren artean oinezko eta topagune izaera sustatzeko.

continuidad a la operación de recuperación de suelos obsoletos de actividad econonómica iniciada en Torreaga, y sirve de transición entre el tejido residencial y el industrial que se mantiene, evitando el traslado de toda la actividad a la periferia.

Narrondo es un ámbito que se posibilita la estructuración y consolidación urbana del barrio. Además, se recuperan y rehabilitan los restos de patrimonio industrial de la antigua fábrica cementera.

En **Oikia** había 3 propuestas para la construcción de **viviendas**, y finalmente serán dos. Una de ellas, ordena pormenorizadamente con el objetivo de estructura la trama urbana en el centro del núcleo, para eliminar el vacío urbano existente, y mejorar la conexión del entorno de la antigua sociedad y la Iglesia con el de la nueva escuela. Y la segunda se plantea como un ámbito de ampliación destinado a vivenda protegida que además contempla un viario que permitiría desviar el tráfico del centro, entre la Iglesia y el resto parea fomentar el carácter peatonal y como lugar de encuentro del mismo.

| Eremua<br>Ámbito | Etxebizitzak<br>Viviendas | Babesekoak<br>De protección | Tasatuak<br>Tasadas | Oharrak<br>Notas |
|---|---|---|---|---|
| TORREAGA | 249 | 45 | 41 | Martxan<br>En marcha |
| UROLA PLAZA | 138 | 52 | 46 | 4 urtean programa |
| AITA MARI | 160 | 32 | 32 | 4 urtean programa |
| PUNTANOETA | 150 | 150 | 0 | 8 urtean programa |
| NARRONDO | 80 | 46 | 14 | 8 urtean programa |
| | | | | |
| OIKIA (AI-SUNC-R08) | 14 | 0 | 0 | 4 urtean programa |
| OIKIA (PEOU-R01) | 36 | 24 | 12 | 8 urtean Plan Berezia |
| OIKIAN GUZTIRA | 50 | 24 | 12 | - |
| | | | | |
| GUZTIRA | 827 | 349 | 145 | - |

Taulan eremu edo garapen nagusiak zerrendatu dira (antolatutako etxebizitzak zenbatu dira, lehendik daudenak eta mantendu direnak barne). Epealdika aztertuz gero, hauxe da banaketa:

- 249 etxebizitza daude jada martxan (horien artean 45 babestu eta 41 tasatu).
- 312 etxebizitza egin daitezke 4 urteko epean (84 babestu eta 78 tasatu).
- 266 etxebizitza egin daitezke 8 urteko epean (220 babestu eta 26 tasatu).

Guztira 827 etxebizitza, horietatik 349 babes sozialekoak eta 145 tasatuak.

Horiek eta gainerako bizitegi-jarduketa txikiak kontuan izanda, **HAPOk 870 etxebizitza antolatzen** ditu (**834 berriak**; 36 lehendik baizeuden, mantendu egin dira).

En la tabla, se han enumerado los principales ámbitos o desarrollos (se recogen las viviendas ordenadas, incluidas las preexistentes que se mantienen). Analizada por períodos, la distribución es la siguiente:

- Ya están en marcha 249 viviendas (de las cuales 45 son protegidas y 41 tasadas).
- Se pueden construir 312 viviendas en un plazo de 4 años (84 protegidas y 78 tasadas).
- Se pueden construir 266 viviendas en un plazo de 8 años (220 protegidas y 26 tasadas).

En total, 827 viendas, de las cuales 349 serían de protección social y 145 tasadas.

Teniendo en cuenta estas y el resto de actuaciones residenciales menores, **el PGOU ordena 870 viviendas** (**834 nuevas**, ya que 36 son vivendas preexistentes que se han mantenido).




Azterlana egiteari begira, Etxebideko datu batzuk ere jarri dira mahai gainean, zumaiarren eskariak badaudela erakusten dutenak: etxebizitza erosteko 282 pertsona daude izena emanda (141 zumaiar eta 141 kanpoko), eta alokatzeko 270 (150 zumaiar eta 120 kanpoko). Hala ere, kontuan hartu behar da sustapen batzuen aurrean asko aldatzen direla datuak, alokairutik erosketara, esaterako; kontuan izan behar da bi zerrendetan batera ezin dela izena emanda egon. Gainera, baldintzak egiaztatzeko orduan kanpo geratzen da pertsona horietako asko.

De cara a realizar el estudio, también se han puesto sobre la mesa algunos datos de Etxebide que muestran la demanda de viviendas por parte de la población de Zumaia: 282 personas están inscritas para comprar vivienda (141 de Zumaia y 141 de fuera) y 270 para alquilar (150 de Zumaia y 120 de fuera). No obstante, hay que tener en cuenta que los datos pueden variar considerablemente en función de algunas promociones, como, por ejemplo, de alquiler a compra; hay que tener en cuenta que no se puede estar inscrito/a en ambas listas al mismo tiempo. Además, al verificar los requisitos, muchas de esas personas se quedan fuera.

## C.5 JARDUERA EKONOMIKOA

Oikian jarduera ekonomikorako dauden lurzoruak finkatu eta berrantolatu dira, eta Guascor zaharra dagoen tokian eremu berri bat aurreikusi da. Oikian, gainera, bi eremu berri aurreikusi dira, “erreserba” gisa, daudenak okupatu ondoren garatu ahal izango baitira. Eta beste eremu berri bat, Txikierdin, “erreserba” gisa ere, baina izaera mistokoa (industriala-tertziarioa-bizitegikoa).

## C.5 ACTIVIDADES ECONÓMICAS

Se consolidan y reordenan los suelos para actividad económica existentes en Oikia, y se prevé un nuevo ámbito donde está el antiguo edificio de Guascor. En Oikia, además, se han previsto dos nuevos ámbitos, a modo de “reserva” que podrán desarrollarse una vez se hayan ocupado los existentes. Y otro nuevo ámbito también a modo de “reserva” en Txikierdi, pero de naturaleza mixta (industrial-terciario-residencial).




Aldaketak eta planteamendu berriak aztertu ondoren, hizkuntza aldetik inpaktua izan lezaketen jarduketa nagusiak identifikatu dira ELE batzordean.

- ETXEBIZITZA KOPURUA: hainbat garapenen bitartez, 10-15 urteko epean herriko biztanleen kopurua % 20 inguru haztea ekar dezakeelako. Gainera, arnasgunetzat hartu den Oikian igoeraren proportzioa askoz handiagoa izango litzateke, % 40tik gorakoa.
- JARDUERA EKONOMIKOAK: orain artean industrialdeak izan diren eremuez gain, beste hiru eremu ere aurreikusi dira jarduera ekonomikoetarako, eta sailik handienak Oikian daude, gainera.

Tras analizar los cambios y los nuevos planteamientos, en la comisión ELE se han identificado las principales actuaciones que podrían tener un impacto desde el punto de vista lingüístico.

- NÚMERO DE VIVIENDAS: a través de diversos desarrollos, en un plazo de 10-15 años, se podría llegar a aumentar alrededor del 20 % la población del municipio. Además, en Oikia, que ha sido considerado como un “arnasgune”, el aumento podría ser aún mayor, superando el 40 %.
- ACTIVIDADES ECONÓMICAS: además de los ámbitos que hasta ahora han sido polígonos industriales, se han previsto otros tres ámbitos para actividades económicas, y los mayores, además, están en Oikia.

# D. ZUMAIAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

# D. DATOS SOCIOLINGÜÍSTICOS DE ZUMAIA

## D.1 BIZTANLERIA

1991tik 2021era bitarteko bilakaera ikusiko dugu lehenbizi, gaitasun eta erabilerari dagokienez.

## D.1 POBLACIÓN

Primero, veremos la evolución entre 1991 y 2021, en cuanto a la capacidad y el uso.

| | 1991 | 2001 | 2011 | **2021** |
|---|---|---|---|---|
| Zumaian hiztunak<br>Parlantes en Zumaia | 7.968 | 8.294 | 9.144 | **9.820** |

*Biztanle hiztuna. Iturria: Eustat.*
*Población parlante. Fuente: Eustat.*

## D.2 EUSKARAREN EZAGUTZA

Ondoren, 1991tik 2021era bitarteko bilakaera ikusiko dugu, ezagutzari dagokienez.

## D.2 CONOCIMIENTO DEL EUSKERA

A continuación, se recoge la evolución entre 1991 y 2021, en cuanto al conocimiento.

| | 1991 | 2001 | 2011 | **2021** |
|---|---|---|---|---|
| Euskaldunak<br>Euskaldunes | % 67,8 | % 73,1 | % 71,6 | **% 74,0** |
| Ia euskaldunak<br>Cuasi-euskaldunes | % 13,7 | % 14,4 | % 15,8 | **% 12,6** |
| Euskaldunak<br>Erdaldunes | % 18,4 | % 12,4 | % 12,6 | **% 13,4** |




*Euskararen ezagutza. Iturria: Eustat.*
*Conocimiento del euskera. Fuente: Eustat.*

# D.3 ERABILERA KALEAN

Azken urteotan gorabehera batzuk izan ditu euskararen erabilerak, baina oraindik kaleko elkarrizketen erdia baino gehiago euskaraz izaten dira. Azpimarratzekoa da haurrek eta gazteek egiten dutela euskara gehien.

# D.3 USO EN LA CALLE

En los últimos años, el uso del euskera ha tenido algunas fluctuaciones, pero todavía más de la mitad de las conversaciones en la calle se realizan en euskera. Cabe destacar que son los niños y las niñas y las personas jóvenes son quienes más utilizan el euskera.

| | 1991 | 2001 | 2011 | **2021** |
|---|---|---|---|---|
| Orokorra<br>General | % 58,0 | % 52,8 | % 57,8 | **% 50,8** |
| Haurrak (2-14)<br>Niños/as (2-14) | % 80,2 | % 71,2 | % 75,1 | **% 70,3** |
| Gazteak (15-24)<br>Jóvenes (15-24) | % 64,9 | % 70,9 | % 79,7 | **% 66,6** |
| Helduak (25-64)<br>Adultos/as (25-64) | % 64,9 | % 42,2 | % 49,1 | **% 46,7** |
| Adinekoak (65- )<br>Mayores (65- ) | % 52,8 | % 45,3 | % 39,5 | **% 30,3** |




*Erabilera kalean. Iturria: Soziolinguistika Klusterra*
*Uso en la calle. Fuente: Soziolinguistika Klusterra*

## D.4 LEHEN HIZKUNTZA

Azken urteotan pixka bat jaitsi egin da lehen hizkuntza modura euskara jaso duten zumaiarren ehunekoa.

## D.4 PRIMERA LENGUA

En los últimos años ha disminuido un poco el porcentaje de zumaiarras que tienen el euskara como primera lengua.

| | 1991 | 2001 | 2011 | **2021** |
|---|---|---|---|---|
| Euskara<br>Euskera | % 59,6 | % 60,2 | % 56,0 | **% 54,7** |
| Gaztelania<br>Castellano | % 35,1 | % 34,5 | % 34,6 | **% 32,7** |
| Biak<br>Ambas | % 4,7 | % 4,1 | % 6,7 | **% 8,6** |
| Beste bat<br>Otra | % 0,7 | % 1,2 | % 2,7 | **% 4,0** |




*Lehen hizkuntza. Iturria: Eustat.*
*Primera lengua. Fuente: Eustat*

## D.5 ETXEKO HIZKUNTZA

Azken urteotan jaitsi egin da hizkuntza nagusitzat euskara duten etxeen ehunekoa

## D.5 LENGUA HABLADA EN CASA

En los últimos años ha disminuido el porcentaje de hogares en los que el euskera es la lengua principal.

| | 1991 | 2001 | 2011 | **2021** |
|---|---|---|---|---|
| Euskara<br>Euskera | % 46,3 | % 49,1 | % 44,4 | **% 40,3** |
| Gaztelania<br>Castellano | % 35,2 | % 35,0 | % 40,4 | **% 36,4** |
| Biak<br>Ambas | % 18,2 | % 15,3 | % 13,3 | **% 20,8** |
| Beste bat<br>Otra | % 0,3 | % 0,6 | % 1,8 | **% 2,4** |




*Lehen hizkuntza. Iturria: Eustat.*
*Primera lengua. Fuente: Eustat*

